

FASE ITXIA

1 FASEA (6 - 10 URTE)



Egunon, lagunok!

Mundu zabaleko bazter askotan jatorria dugun emakume edadetuak gara. Desberdinak gara denak (gure artean badira nekazariak, zaintzaileak, enpresariak, ehuleak, bidaiariak, artistak, xamanak...) baina misio bera dugu denok helburu. Gure bizitza osoan zehar —gure zahartzaroan barrena bereziki— borrokan ibili gara gure komunitateak, gizateria, bizidun guztiak eta Ama Lurra ongi bizi gaitezen, bidezko modu batean, zoriontsu. Baina mundu honek galarazi egiten die gizaki askori ondo bizitzea, bizimodu duina izateko premiazkoa dena edukitzea. Gizakiok ez gara bizi planeta honekin orekan, ez dugu baliabideen banaketa-sistema justua eta, horrek, bai Ama Lurrari, baita bertan bizi garenoi ondoeza sortarazten digu.

Orain urte asko hasi ginen bizitzaren oreka-arbolaren zaindari izaten. Maitasun handiz zaindu dugu, ardura osoz jardun gara arazoak eta desorekak atzematen, balizko konponbideak eta konpontzaileak bilatzeko. Orain beharrezkoa da beste belaunaldi batek gure eginkizun honen testigua hartzea eta, gure iritziz, haurrek zarete egokienak misio hori burutzeko, etorkizuna zuek zaretelako, Ama Lurraren eta gizakien ongizatea bermatzeko zuek baino hobierik ez dagoelako.

Misio polit bezain premiazko horretaz ardurazten ausartuko al zarete?

Badakizue besten hainbat ikastetxe ere ari direla esku hartzen abentura honetan. Guztiok elkarrenguei dezagun, nahi baduzue, bete ezazue ondoko aurkezpen-profila.

NIRE PROFILA

Profila osatu bitartean, Amona Margaritaren kanta entzun dezakezue hemen



Zer iruditu zaizue letra?

Hasi egingo gara. Erronka latz honi ekin ahal izateko, funtsezkoa da argi eta garbi jakitea zer dugun beharrezkoa ongi bizitzeko eta zer den, gure iritziz, ongizatea (ez da dirudien bezain soila, ez pentsa!) Honekin lagunduko dizuegu, hara.

1. JARDUERA



Taldeko kide guztiok, elkar harturik, arbola tantai bat marraztuko duzue, adibidez, paketeak biltzeko paper handi batean. Oraingoz, sustraiak, enborra eta adarrak marraztuko ditugu (lasai: hurrengo batean kimuek eta gainerakoek apainduko duzue).

Arbola prest dugula, korroan jarriko gara, denok ikusi eta entzun ahal izateko moduan. Hitz-zirkulua izango da hori, ideiak, iritziak emozioak, sentimenduak partekatzea. Hona hemen hasierako solasgaia:

Zerk sentiarazten nau ongi? Zer dugu denok premiazkoa bizitzeko?

Lehen zirkulua amaituta, kide bakoitzak bere eskuaren silueta adaxka baten ondoan marraztuko du, eskua orria balitz bezala. Idatzi ezazue barrian partekatu duzuen.

2. JARDUERA

Taldeko kide guztiok bukatu al duzue? Orduan, beste hitz-zirkulu bat egingo dugu, hau da, korroan eseriko gara, denok denon begiak ikusteko moduan. Zuetako bakoitzak, banan-banan, esan beharrekia adieraziko du eta gainerakoek ez diote hitza moztuko, ezta norberak iruzkindu besteek esandakoa ere. Entzute aktiboa praktikatuko dugu horrela:

Zein dira dauzkadan gauzak? Zein, behar ez ditudanak? Zein dira ongi sentiarazten ez nauten gauzak?

Zirkulua amaituta, erantzunak lurrean jarriko ditugu, eroritako hostoak balira bezala, barruan gure hitzak idatzita.

Ongi bizitzeko behar duguna zer den pentsatu eta partekatu duzuen, orain bizitzeko beharrezkoak diren eta ongi sentiarazten gaituzten gauzen zerrenda egingo dugu. Nahi baduzue, ipini argazkiak, adierazi nahi duzuen ikusi ahal izan dezagun.

Harresia

Kaixo berriro, arbola-zain horiek!



Zer moduz zarete? Orain arte ikusi dugu bakoitzak ongi bizitzeko zer behar duen eta, gainera, ongizate hori zer den ulertzen hasi gara. Oso kontuan izan behar dugu norberaren ongizatea ez dagoela bere esku, beharrezkoa da komunitate osoa ongi izatea. Batzuetan, beharrezkoak ditugun baliabideak partekatzea zail egiten zaigu, horiek gabe geratzearen beldur; horrela balitz ez ginateke ongi sentituko... Hori egiaztatzeko, joko honetan parte hartzea proposatuko dizuegu.

3. JARDUERA

Joko honen bi parteetan arituko gara.

Lehendabizikoan, antolatutako aulkia (zenbat lagun, hainbat aulki ken bat) zirkuluan, kanpora begira. Musika jotzean, dantzan hasiko zarete aulkien inguruan, isildu arte. Orduan, denok aulkia bilatuko duzue, esertzeko. Aulki gabe geratzen dena, jokatik kanpo dago. Helburua da eserlekua bilatzea beti, aulki bakarra geratu arte.

Ondoren, beste modu batera jardungo dugu: musika isiltzean, kide guztiak aulki banatan igotzea, denok aulki guztiak partekatuz.

Jokoa ezagutzen duzuelarik, hasi egingo gara...

Zer moduz, gustura ibili zarete?

Zuen sentsazio guztiak beste hitz-zirkulu batean partekatuko ditugu.

Nola sentitu gara lehengo jokoan, nola bigarrenarean? Aurreneko saioan zenbat kidek lortu dute helburua? Eta bigarrenarean? Zeinek sentiarazi zaituzte hobekien? Bidegabeko egoerarik izan al da? Jokatik kanpora irten behar izan duzuenok nola sentitu zarete?

Egiazko ongizatea izan al daiteke, zu lasai eserita egonda, besteak nekatuta zutik edo lurrean eserita badaude? Nolako emozioa sentitzen dut nik, lagunaren aurkako lehian ari naizela? Zure lagunak era horretantxe ikusten al dituzu? Eta elkar laguntzen ari zaretenean, berri? Nola ikusten dituzu horrelakoetan?

Zein joko-parte da errealitatearen berdina? Aulkia izan orde, ura, elikagaiak, babesa... balira, zer gertatuko litzateke errealitatean? Zer gertatu beharko litzateke? Munduan dauden baliabideak ongi banatuta al daude? Baliabidetara iristerik ez duten pertsonak nola sentitzen dira, zuen iritziz? Denbora gehien lehian jardun beharko bazenu, ongizatea izango litzateke zurea?

4. JARDUERA

Gogoetak arbola dagoen irudian jarriko ditugu, nitasunetik gutasunera zabalduz. Enborrean, berri, hitz-zirkuluan jorratu dituzuen arazoez idatziko dugu.

Orain badakizue ongizatea zer den. Ipini hemen ongizatearen definizioa, zuen iritziz.

ZER DA ONGIZATEA?

Bidali

FASE ITXIA

5 FASEA (8 - 10 URTE)



Bide amaierara iristen ari gara. Esker ona agertu behar dizuegu Ama Lurraren eta izaki bizidun guztien ongizatearekin inplikatuak zaudetelako. Aurrerantzean arbolazain bikainak izango zarete, dudarik gabe.

Orain, zuen sentimendu eta mezuak biderkatu behar ditugu, munduan geroz eta gizaki gehiagoren helburua egiazko ongizatea eta oreka izan dadin. Beraz, Ama Lurraren egunean, apirilaren 22an, berriro ikusiko gara. Orduan, munduan diren arbola-zaindari guztiak elkartuko gara egintza globaleko jardunaldia burutu eta gure borroka eta konpromisoaren emaitza ospatzeko.

Horregatik, beharrezkoa da apirilaren 22an arbola-zaindari guztiek zerbait berezi-berezia egitea: zuen Biziaren Arbola sortzea. Arbola-mota berezia da hori, denetan magikoena.

Antzinako eta indigenen kultura gehienetan arbolak gune nagusia betetzen du. Antzinako mexika edo aztekek sinesten zuten kosmoseko oihartzuna atzemateko gauza zirela arbola jakin batzuk. Zelten kulturean, arbola sakratua munduaren euskarri nagusia zen. Biblian eta Kabalan ere agertzen dira arbola bereziak. Budak, arbola baten gerizpean topatu zuen jakinduria. Iparramerikako jatorriko herriek "senide" esaten diete arbolei. Ekialde Hurbileko herri nomada batzuetako emakumeak sabelean arbola apartak tatuatzaren zituzten, ugalkortasuna erakartzeko. Egiptoko antzinako zibilizazioan arbolak biziaren eta heriotzaren arteko lokarritzat jotzen zituzten...

Arbola Naturaren ikurra da baina, aldi berean, munduko kulturen osagai bat. Gizaki guztien arteko eta gizakien eta Ama Lurraren arteko lokarria denez, gure ikurra izango da apirilaren 22an, egintza globaleko egun horretan.

Talde bakoitzak bere Biziaren Arbola sortzea eskatzen dugu edade handiko emakumeok. Nahi duzuten eran egin dezakezue: margotuta, zizelkatuta, gorputzarekin irudikatuta, ordenagailuz diseinatuta, horman marraztuta, hitzez osatuta, argazkian aterata... Muga bakarra zuen sormena da. Berdin dio kaktus urdina edo zotzez eginiko sahats ñimiñoa izatea. Denon artean zenbat eta espezie, molde, kolore, tamaina eta itxura gehiago lortu, orduan eta hobe! Magia zuek emango diozue, elkarlanean arituta.



Ondoren, hormara igo beharko duzue, hauekin: [#Earthday](#) eta [#Conectandomundos](#). Arbola berezi-berezi hori eginda, planetarekin, gizakiekin eta bizidun guztiekin elkar hartzen duzelako. Mundu justuago eta jasangarriago bat lortzeko konpromisoa hartzen duzue horrela.

Eta, ahal bada, denek ikusi beharko dute arbola. Ikastetxean, auzoan, senitartekoek, lagunek, ingurukoek... denek. Kontua da ingurua biziaren arbolez betetzea. Horregatik diogu Egintza Globaleko Eguna dela hori. Denek izan behar dute geure nahigabearen eta haserrearen berri.

Eta hori egintza bakarra ez izatea nahi baduzue, zerbait gehiago egin nahi baduzue... Zoragarri! Zuen konpromisoa erakusteko, adibidez, herriko Udaletxe aurrean protesta egin dezakezue; edo gertuko plaza bat pankartekin okupatzea, auzotarrak kontzientziazteko; edo naturagune batera joan eta garbiketa egitea; edo kontzientziazte-jardunaldi bat antolatzea kultura-zentro batean; edo gai horri buruzko antzerki bat egitea herriko edo auzoko plazan; edo kalez kale batukada jotzen ibiltzea... Era berean, "Fridays for Future" ikasle-mugimenduarekin bat egin dezakezue, horrek, seguruenik, protesta-ekitaldiren bat antolatuko baitu zuen inguruetan, dagoeneko mundu osoan duelako presentzia.

Joan behar dugu, gazteok. Emakume edadetuok atseden hartu eta gure Biziaren Arbola nolakoa izan behar duen imajinatu behar dugu. Denon artean adostasuna bilatzeko, hitz zirkulu bat egingo dugu.

Besarkada estua, lagunok. Hurrengora arte.

